


CANADA

KOMUNIKAZIORAKO
METODOLOGIA BAT
JOKOAK



I URTEA

1. Zka.

URTARRILA - APIRILA

350 pta. — 19 libera



euskalduntze-alfabetatzearen aldizkaria

ZUTABE

Zuzendaritza: Iñaki ARANBERRI
Erramun BAXOK
Pello ESNAL
Imanol IRIZAR
Gurutz LARRAÑAGA
Joxe LIZARRALDE
Joxe Joan G. DE TXABARRI
Boni URKIZU

Koordinatzailea: Imanol IRIZAR

Idazkaritza: HABE

Harpidetzak: ZUTABE aldizkaria
Andia, 13 - 6.
Donostia — Tel.: (943) 42 91 20

1983rako prezioak: Ale bakoitza: 350 pta. edo 19 F.F.
Harpidetza: 900 pta. edo 50 F.F.

Legezko Gordailua: Donostia 80/83

AURKIBIDEA

Sarrera	3
-----------------------	----------

GAI MONOGRAFIKOA — CANADA

● Sarrera	7
● Elebitasuna Canadian (E. Baxok)	8
● Quebec-eko hizkuntz gatazkari gainbegirada (J. M. Odriozola)	19
● Unibertsitatea, Quebec-eko burujabetza eta frantseste-prozesuaren aurrean (M. J. Azurmendi)	27
● Canadako elebiduntze-programa (E. Baxok)	36
● Canadako hizkuntz erakundeak (P. Esnañ eta J. M. Gutierrez)	40
● J.-D. Gendron eta W. Mackey-rekin elkarrizketa	52

EXPERIENTZIAK

— Bilboko HABE Euskaltegiko kultur astea (K. Azkuenaga)	59
— Irakurgaiak lantzeko baliabide bat (J. Perales)	60
— Mintzamina lantzeko jokoak (B. Martinez, A. Urizar, I. Iturain)	62
— Datorren hileko antzerki-lana	63
— Nazioarteko arazoak	64
— Istorio tristea	65
— Kotxea gidatu behar duzula: ba, ez edan	66
— Amodioak eragindako hilketa	67

ITZULPENAK ETA LANKIDETZAK

● Hizkuntzen irakasbideak (J. A. Mujika)	77
● Komunikaziorako metodologia bat (J. Courtillon)	85
● «El vasco de hoy» metodoa (J. J. Txabarri)	94

GURE MUNDUTXOA

● Mintza, irakur eta idatzi euskaraz (G. Egia)	109
● Ikusentzunezko medioak euskararen irakaskuntzan (I. Aranberri)	110
● Hezkuntzako Glotodidaktika-lanak (I. Arrieta)	113

● Komikia, beste ballabide bat (E. Larrarte)	113
● Hormirudiak (M. Dorronsoro)	114
● «Ikasten» aldizkari berri bat (I. Unzurrunzaga)	115
● Alfabetatzearen programa (G. Larrañaga)	116
● Europako Kontseilua (I. Arrieta)	117

LIBURUAK ETA ALDIZKARIAK

● Liburuak

AIMAV. — Enquete sur l'enseignement des langues aux adultes en Europe (F. Torrealdei)	121
CALVET, L. J.; Lingüística y colonialismo (F. Ibargutxi)	122
ENGELKAMP, J.; Psicolingüística (E. Larrarte)	122
MACKEY, W.; L'irredentisme linguistique: un enquete temoin (M. Dorronsoro)	123
POZUELO, SANCHEZ eta beste; Didáctica para la clase de inglés (M. Dorronsoro)	124
TITONE, R.; Psicolingüística aplicada (J. Lizarralde)	125
UZEI; Hizkuntzalaritza hiztegia (J. J. Txabarri)	125
ZIERER, E.; Un modelo integral para la didáctica de segunda lengua (I. Irizar)	127
Liburu-zerrenda	128

● Aldizkariak

AIZU aldizkaria gure mahai gainean (F. Ibargutxi)	131
Aldizkari-zerrenda	133

SARRERA

Orain bilabete gutxi, euskalduntze-alfabetatze gaietan espezializatutako aldizkari tekniko baten premia ikusi zuen HABEK. Eta berehala ekin zion lanari. Lehen asmo haren ondorio duzu laubilabetekaria izango den ZUTABE aldizkari hau.

Euskalduntze-alfabetatzearen bidea urratu du aspalditxotik Euskal Herriak. Azken hogei urte hauetako esperientzia aberatsa izan da, liburu-produkzioa ugaria (metodo, hiztegi, gramatika-liburu, aldizkari mailakatu, eta abar) eta irakasle goa profesionaltzen joan da. Aurrerakada garrantzitsua, beraz.

Baina bada euskalduntze-alfabetatze alor honetan eskas samarra den atala ere, didaktikari eta ikerketari dagokiona, hain zuzen. Hizkuntzak irakasteko ez da nahiko hizkuntzen gramatika eta barne-antolaketa jakitea, aldi berean ezagutza gramatikal horien aplikazioak aberatsak eta errekurtsos beteak gertatzen ez badira. Bestalde, ikasle goaren motibazioak beronen adinari dagozkion baldintzak ere kontuan hartu beharko lituzke irakasleak, eta horretarako, noski, gaurregungo teorien berri jakin behar du.

Hementxe kokatzen da ZUTABEren eginbehar nagusia. Hizkuntzen irakaskuntzan eta alfabetatze-gaietan teoria, teknika eta ikerketa berriak ezagutarazte eta helburu nagusi.

Ekintza honetan, ezin dugu Unibertsitate-mundua abaztu. Badakigu, jakin, zer-nolako eragina duen Unibertsitateak gizarteko zenbait alorretan eta bereziki lan eta ikerketa zientifikoa arean. Tesina, tesi, doktoradutza eta beste hainbat lanen iturria Unibertsitatea delakoan gaude, eta horrexegatik mundu horri gertutik jarraitzeko asmoa dugu.

Arestian aipatu ideien bidetik, hainbat sailetan banatu dugu aldizkaria.

«Gai Monografikoa» izeneko sailak ematen dio hasiera aldizkariari. Gai nagusi bat aztertuko dugu ale bakoitzean. Irakasle goaren ezagupen teorikoak sendotzea da sail honen xedea, askotan aspergarri, luzeegi eta teorikoegi gertatzen diren liburuen irakurketa erraztu asmoz. Informazio gaurkotu eta sakona biltzen saiatuko gara. Bestalde, «Gai Monografikoa» osatzen duten artikuluek («Itzulpenak eta Lankidetzak» sailekoek bezala) hiru hizkuntzatan eginiko laburpenak ere izango dituzte (gaztelaniaz, frantsesez eta ingelesez).

Lehen saila teorikoa den bezala, bigarrena, «Experientziak», guztiz praktikoa izango da. Teoria eta praktikaren arteko oreka lortzea da gure helburuetariko bat, eta horrexegatik abaleginduko gara euskaltegietan egiten diren lan praktikoa eta experimentalak jasotzen. Dei egiten diegu hemendik euskara-irakasleei, nolabaiteko berrikuntza ekar dezaketen joko, ariketa eta beste edozein asmakuntza bidal diezazkiguten.

Bi bide ezberdinetatik jasotako artikuluek osatuko dute «Itzulpenak eta

Lankidetzak» saila: nazioarteko aldizkari espezializatuetatik euskaratuko ditugun lanek, batetik; eta lankideek bidaltzen dizkigutenek, bestetik (ikus ZUTABE aldizkariara artikulua bidaltzeko arau orokorrak azken orrialdean). Sail honetan, gai monografikoarekin zerikusirik ez duten lan sakonak aurkeztuko dira. Aukera eman nahi diegu irakasle, unibertsitari edo euskara-arloan lan egiten dutenei beraien lanak sail honen bidez azal ditzaten.

Elkarrizketak ere badu bere tokia aldizkarian. «Elkarrizketa» sailaren bidez, kazetaritza-modu honek berez dituen bizitasun eta erakargarritasunaz baliatuz, mundu zabaleko zientzilarien azken eritzi eta berriak ezagutarazi nahi ditugu. «Gai Monografikoa»rekin lotura duenean han agertuko da, eta ez duenean aparteko sail honetan.

Aldizkari batek ez die gertaera, albiste eta gai guztiei tratamendu bere ematen: batzutan labor, bestetan luze, eta ez gutxitan, lehenik labor (berri-ematea soil-soilik) eta gero luze (sakoneko lan baten ondorioz). Hori dela-eta, «Gure Mundutxoa» deritzan sail honetan berri laburrak jasoko ditugu, gero hurrengo zenbakietan, hauetako zenbaiti buruz lan sakonagoak eskainiko badiugu ere.

Garrantzitsu deritzagu, tankera honetako aldizkariaren bukaeran, liburu eta aldizkari kritika, laborpen eta aipamenak emateari. Horren ondorioz, «Liburuak eta Aldizkariak» saila sortu dugu. Sail honetan bi zati nagusi bereiz ginitzake: alde batetik kritikak, eta bestetik zerrendak. Bigarrenaren izateko arrazoia oso sinplea da: irakurleak ezagutu dezala, alegia, alfabetatze eta hizkuntzen irakaskuntzari buruz dagoen bibliografia. Eta libururen bat interesatuko balitzaio, hilabete gutxi barru ateak zabalduko dituen HABE-liburutegiaren bidez eskuratu ahal izango du.

Sail guztien nondik-norakoa aztertu ondoren, ikus dezagun zer-nolako zenbakia izango den lehenengo hau.

Ale honetan Canada aukeratu dugu aztergaitzat, neurri handi batetan Quebec-eko hizkuntz gatazkara mugatu bagara ere. Normalean «Gai Monografiko»an alfabetatzea eta hizkuntz irakaskuntza ukituko ditugu, baina alor honetako zerikusirik izango duten gaiak ere aztertuko ditugu noizean behin (Canadako egoera soziolinguistikoa, kasu).

Canadari buruzko berriak emateko, zenbait euskaldunek hantxe bertan egindako azterketek baliatu gara. Bertara egindako bidaia batetan parte hartu zuten Jose Manuel Odriozola, Pello Esnal eta Juan Migel Gutierrezki eskatu diegu hitza. Hauxe aparte, beste bi espezialistek ere eman digute beren eritzia: Erramun Baxokek eta M.^a Jose Azurmendik. Monografia honi amaiera emateko, glotodidaktika eta soziolinguistika-gaietan hain famatu diren Jean-Denis Gendron eta Williams Mackeyrekin egindako elkarrizketa eskaintzen dugu.

«Experientziak» sailean, gure eritzi lagungarri gerta daitezkeen zenbait rol-joko eta berrikuntza didaktiko agertzen dira, klaseetan erabiliak izan daitezkeen.

Hiru artikulua aukeratu ditugu «Itzulpenak eta Lankidetzak» sailerako; J. A. Mujikak UZEIren Hizkuntzalaritza Hiztegian agerturiko artikulua berrargitaratzen dugu, benetan argigarri deritzagulako; bigarrenik, azken denboraldian hainbeste aipamen merezi izan duen komunikazio-arazoari buruz, J. Courtillon-ek aurten bertan argitaratu duen artikulua euskaraturik; eta azkenik, «El vasco de hoy» euskarazko metodoari buruz J. J. Txabarrik egin duen azterketa.

«Gure Mundutxoa»n handik eta hemendik jaso ditugun albisteen berri ematen dugu. Eta «Liburuak eta Aldizkariak» sailean, berriz, hainbat liburu eta aldizkariaren kritika, laborpen eta aipamenak eskaintzen ditugu.